



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 8a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, gaztelania –eta kasua bada, euskara– etorkinei irakasteko prestakuntzako ekintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Castejongo 38 familiarendako etxebizitza-aukerari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen dekretu berriaren zirriborroari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen araudi berriari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Erriberriko Jauregiaren kudeaketa emateko prozesuari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Unibertsitateetako Ministerioaren azken txostenari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, azken hilabeteotan aurkeztu diren haize- eta eguzki-parkeen izapidetzea zertan den jakiteko. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Larrabide estadioko tartanaren egoera txarrari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusian Nafarroako Sinboloei buruzko 4/2020 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, COVID-19aren pasaporteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Garraioaren Hiriaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala handitzea onestetik heldu diren administrazio-jarduketeki buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumentalen 2020an detektatu dituen ez-betetzeei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpenaren ondotik Altsasu kasua izenez ezagutzen denaren prozedura judiziala onartzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, gutxieneko diru-sarreraren eskumena eskualdatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, xenofobiaren aurka eta gizarte-kohesioaren alde Gobernuak hartutako konpromisoak Madrilen hartutako erabakien mende egoteari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, gutxieneko diru-sarreraren eskumenaren eskualdaketa berriro geroratu izanaren arrazoiei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroarako fiskalitateari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (12. or.).
- Galdera, sare sozialetan Foruzaingoan protokoloari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren onespeneren ondorioei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskinetako sektore ekonomikoak zabalagotzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2022 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen (17. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa. Proposamenak aurkezteko epea luzatzea (22. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, gaztelania –eta kasua bada, euskara– etorkinei irakasteko prestakuntzako ekintzei buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, gaztelania –eta kasua bada, euskara– etorkinei irakasteko prestakuntzako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, 2022ko otsailaren 10erako aurreikusita dagoen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Beste herrialde batzuetatik etorri eta Nafarroan bizi diren gazte eta heldu askok ez dute beren inguruneko komunikazio-hizkuntza ezagutzen; hortaz, zailtasun ugari izan ohi dute komunikatzeko eta Nafarroako Foru Komunitateari buruzko informazioa eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko.

Hizkuntza jakitea da gizarteratzeko tresnarik hoberena.

Denetarik dago Nafarroan gizarte-komunikaziozko hizkuntza ezagutu gabe bizi direnen artean: 18 urte baino gehiago daukaten gazte heldu berriak; bertako hizkuntzan hitz bakar bat esaten ez dakiten amak, zeinen seme-alabek eskolan eta kalean ikasten baitute eta erabiltzen baitute hizkuntza; zaugarritasun-egoeran dauden etorkinak, errefuxiatuak...

Hortaz, ezinbestekoa da pertsona horiek hizkuntza ikasteko prestakuntza jasotzeko modua izatea, bai eta ezagutza areagotzekoa ere.

Helduen hezkuntza-sistemak atzeritarrek gaztelania ikasteko programak jasotzen ditu, baita solasaldikoak ere. Halere, ez dira hizkuntza ikasi behar dutenengana iristen. Baieztapen hori berresten dute pertsona horiei moldatzen eta besteekin elkar ulertzen laguntzeko, babesteko eta irakasteko antolatu diren kolektiboek ere.

Hezkuntza Departamentua prestakuntzako zer ekintza eta zer hedatze-prozedura garatzen ari da edo garatuko du Nafarroan bizi diren 18 urtetik goitiko etorkinek gaztelania –eta kasua bada, euskara– ikas dezaten?

Iruñean, 2022ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Castejongo 38 familiarendako etxebizitza-aukerari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Castejongo 38 familiarendako etxebizitza-aukerari buruz María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2019ko urrian jakin genuen, Castejongo Udaren eta prentsan agertutako informazioaren

bidez, Castejonen 38 familiak bizi zuten arazoa; izan ere, orain dela 20 urte babes ofizialaren araubidean eraikitako pisuen bloke bateko higiezi-na utzi behar zuten beren alokairu-kontratuaren indarraldia bukatzean, babesaren indarraldia ere bukatu baitzen.

Une hartan, Castejongo Udalak, ukitutako bizi-lagunek, Erriberako Hipotekak Ukitutakoen Plataformak eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egoerari konponbide bat emate aldera elkarrekin egindako lanari esker, bi urteko luzapena ezartzea lortu zen familia horien alokairu babestuan.

Luzapen hori bukatu da jada, eta beren etxebizitza berriz ere arriskuan ikusten dute ukitutako familiek.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak aurreikusi al du familia horientzako etxebizitza-aukerarik eskaintzea?

Iruñean, 2022ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen dekretu berriaren zirriborroari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen dekretu berriaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eldun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Zure ustez, Nafarroako Administrazio Publiko-
etako lanpostuak betetzeko merezimenduen balo-
razioa arautzen duen dekretu berriaren zirriborroa
tresna egokia al da gizarte-kohesioa, berdintasu-
na eta bizikidetasuna bultzatzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

**Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko
merezimenduen balorazioa arautzen duen araudi berriari buruzkoa.****BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko
otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso
andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Admi-
nistrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko
merezimenduen balorazioa arautzen duen araudi
berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxi-
kitako Bakartxo Ruiz Jaso Foru Parlamentari

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188.
artikuluari eta hurrengoetan xedatuaren babese-
an, eskatzen du Herritarrekiko Harremanetarako
Kontseilari Ana Ollo Hualde andreak honako gal-
dera honi ahoz erantzun diezaion Osoko Bilkuran

Pasa den urtarrilaren 28an Nafarroako Gober-
nuak Funtzio Publikoko Mahai Orokorrera bidera-
tu zuen Nafarroako Administrazio Publikoetan
merezimenduak baloratzeko araudi berriaren zirri-
borroa.

Zer dela eta iruditzen zaizu “partzialki bada
ere, aurrerapausua dela” dekretu proposamena,
eta zure ustez zer nolako oinarria ezartzen da
Gobernuak onartzear duen Euskararen II. Plan
Estrategikoari eta departamentuen hizkuntza pla-
nen onarpenari begira?

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Four Parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Erriberriko Jauregiaren kudeaketa emateko prozesuari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Erriberriko Jauregiaren kudeaketa emateko prozesuari buruz Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abenduan, Erriberriko Jauregiaren kudeaketaren lizitazioa ebatzi zen, eta Katalunia-ko Magma Cultura enpresari esleitu zitzaion kudeaketa.

Ebazpen horrek, tramitazio tekniko batetik heldu den arren, nolabaiteko ika-mika eragin du gizartean; are gehiago, orain arte kudeaketaren emakida izan duen enpresak –Guiarte– errekurtsu bat paratu du administrazio-auzitegian.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Erriberriko Jauregiaren kudeaketa emateko prozesuari buruz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Unibertsitateetako Ministerioaren azken txostenari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unibertsitateetako Ministerioaren azken txostenari buruz Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Uraba-

yen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Unibertsitateetako Ministerioaren azken txostenaren arabera, Espainiako unibertsitate publiko guztietako txikiena da graduko ikasketak lehenbiziko urtean uzten dituzten NUPeko ikasle-tasa. Nafarroa, gainera, Espainian lehenbiziko tokian da errendimenduari, arrakastari eta ebaluazioari dagokienez.

Zer balorazio egiten duzu txosten horren emaitzez? zer egingen duzue lortutako emaitza onei eusteko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, azken hilabeteotan aurkeztu diren haize- eta eguzki-parkeen izapidetzea zertan den jakiteko.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, azken hilabeteotan aurkeztu diren haize- eta eguzki-parkeen izapidetzea zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken hilabeteotan, zenbait ekimen pribatuk dozenaka haize- eta eguzki-parkeren proiektu aurkeztu dituzte Nafarroa osoko landa-eremuetan. Proiektu horiek atseginez hartu dituzte zenbait herritan, eta beste batzuk kontra azaldu dira; edozein modutan, proiektu horiek legez ezarrita dauden iragazkiak pasatu behar dituzte errealitate bihurtu aitzin.

Horregatik, eta txostenak eta ingurumen-inpaktuen adierazpenak egin behar dituena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua denez, zertan da azken hilabeteotan aurkeztu diren haize- eta eguzki-parkeen izapidetzea?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, Larrabide estadioko tartanaren egoera txarrari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Larrabide estadioko tartanaren egoera txarrari buruz Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 15eko eta 16ko asteburuan (Larrabiden Nafarroako Kirol Jokoak egin ziren asteburu horretan), Kultura eta Kirol Departamentuak edo Nafarroako Kirolaren Institutuak inolako harremanik izan al zuten antolatzaileekin eta arduradunekin, tartana ia-ia erabilgaitz zegoela ikusita?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusian Nafarroako Sinboloei buruzko 4/2020 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusian Nafarroako Sinboloei buruzko 4/2020 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zergatik ez du betetzen Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusian Nafarroako Sinboloei buruzko 4/2020 Foru Legea?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, COVID-19aren pasaporteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea COVID-19aren pasaporteari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer politika baliatuko du COVID-19aren pasaportea dela-eta?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Garraioaren Hiriaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala handitzea onestetik heldu diren administrazio-jarduketei buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Garraioaren hiriaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala handitzea onestetik heldu diren administrazio-jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Auzitegiek erabat deusez deklaratu ondoren Garraioaren hiriaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala handitzearen onespena, zer administrazio-jarduketa geratu dira baliogabeturik deuseztasun horren ondorioz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumentalen 2020an detektatu dituen ez-betetzei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumentalen 2020an detektatu dituen ez-betetzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Kontuen Ganberak Tracasa Instrumentalen 2020an detektatu dituen ez-betetzeak direla-eta?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpenaren ondotik Altsasu kasua izenez ezagutzen denaren prozedura judiziala onartzeari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpenaren ondotik Altsasu kasua izenez ezagutzen denaren prozedura judiziala onartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko Gobernuak nahiz egungo Justiziako kontseilariak adierazitako iritzia kontuan hartuta, zure Gobernuak aurreikusita al du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpenaren ondotik Altsasu kasua izenez ezagutzen denaren prozedura judiziala onartzea?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, gutxieneko diru-sarreraren eskumena eskualdatzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea gutxieneko diru-sarreraren eskumena eskualdatzeari buruz Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren eledun Javier Remírez Apesteguía adierazi du oso aurreratuta dagoela gutxieneko diru-sarreraren eskumenaren eskualdaketa, eta orobat adierazi du bere ustez laster itxi eta iragarri ahal izanen dela Espainiako Gobernuarekiko akordioa.

• Noiz eta nola eskualdatuko da gutxieneko diru-sarreraren eskumena?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak otsailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aurreikusita al dago Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzea, halako moduan non Nafarroako Gobernuak herri-akzioa baliatu ahal izanen duen emakumeen aurkako indarkeriako kasurik larrienen edo delituzko ekintzak emakume baten heriotza dakarrenean?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, xenofobiaren aurka eta gizarte-kohesioaren alde Gobernuak hartutako konpromisoak Madrilen hartutako erabakien mende egoteari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, xenofobiaren aurka eta gizarte-kohesioaren alde Gobernuak hartutako konpromisoak Madrilen hartutako erabakien mende egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék 2022ko otsailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Zuk eta zure gobernuak xenofobiaren aurka eta gizarte-kohesioaren alde hartutako konpromisoak Madrilen hartutako erabakien mende egonen al dira, interes politiko jakin batzuk direla-eta?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, gutxieneko diru-sarreraren eskumenaren eskualdaketa berriro geroratu izanaren arrazoiei buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gutxieneko diru-sarreraren eskumenaren eskualdaketa berriro geroratu izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den ostiralean ematen zuen gutxieneko diru-sarreraren eskumenaren eskualdaketa berehala izanen zela baina Ministerioak berriro ere geroratu zuen.

Horregatik, lehendakariari galdetzen diogu zer arrazoi eman zuen ministroak geroratze horretarako eta zer balorazio egiten duen arrazoi horiek direla-eta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, Nafarroarako fiskalitateari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroarako fiskalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen M^a Jesus Valdemoros Erro andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu eragile ekonomikoek etengabe eskatzea Nafarroarako fiskalitate erakargarriago bat?

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, sare sozialetan Foruzaingoan protokoloari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, sare sozialetan Foruzaingoan protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko kontseilariak 2022ko otsailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusi dugunez, azken hilabeteotan Foruzaingoren jakinarazpen ofizial batzuk izan dira Twitterren bidez, atxilotutakoen jatorria edo legezko egoera adierazten dutenak.

Halaber, igandean irakurri ahal izan genuen Nafarroako prentsan argitaratutako jarduketaren balantzea, jarduketa horien datuen banantzearekin, bakarrik dauden adingabeekin izandako jarduketak adierazita. Azkenik, zenbait hedabideetan polizia ezberdinekin egindako elkarrizketak irakurri ditugu, non errepikatzen baita migrazioa delinkuentziarekin lotzeko ideia. Arrazismo instituzionalaren zantzu argi horien eta balizko arriskuaurrean Funtzio Publikoko kontseilariari honako hau galdetzen diogu:

Foruzaingoan komunikazio protokoloen bat al dago gai horri ekiteko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren onespeneren ondorioei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021

Errege Lege-dekretuaren onespeneren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako lehendakariak 2022ko otsailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer ondorio ekarriko die herritarrei Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren onespenez?

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruzkoa.**GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaz, zeina 2021eko urtarrilaren

26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen (10-21/POR-00046).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei buruzkoa.**GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tribu-

tu-neurriei buruzkoa zen, eta 2021ko maiatzaren 11ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00218).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa zen, eta

2021eko maiatzaren 11ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00219).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskineko sektore ekonomikoak zabalagotzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskineko sektore ekonomikoak

zabalagotzeari buruzkoa zen, eta 2021eko maiatzaren 28ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00246).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaz, zeina 2021eko azaroa-

ren 19ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen (10-21/POR-00432).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Garate andreak Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaz, zeina

2021eko azaroaren 23ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen (10-21/POR-00437).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2022 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak igorri du 1/2022 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Tributu Harmonizazioari buruzko otsailaren 2ko 1/2022 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen baitira. (10-22/DFL-00001).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2022 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen

ZIOEN AZALPENEA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-

araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, aipatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une oro indarra duten arau substantibo eta formal berak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik funtsean aldendu gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkideko aldaketa batek behartzen badu estatuan une horretan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak ematen ahalko ditu tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnei, "tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Estatuan, abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege-dekretuak, mugikortasun elektrikoa, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzeko premiazko neurriak hartzen dituenak, sektore elektrikoan hartutako zenbait tributu neurriren indarraldia luzatu du, bai eta COVID-19aren pandemiari aurre egiteko helburua duten zenbait neurri fiskalena ere.

Lehenik eta behin, sektore elektrikoari dagokionez, 2022ko lehen hiruhilekorako luzatu da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etenaldia.

Fiskalitate energetikoaren eta energiaren ekoizpenaren arloan eta uraren erregulazio kanoa eta erabilera tarifa kudeatzearen arloan premiazko neurriak hartzen dituen ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege-dekretuaren bidez ezarri zen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etenaldia 2021eko lehen hiruhilekorako; izan ere, argindarraren prezioen bilakaera zela eta -une hartan gertatzen hasia zena- posible zen neurri hura hartzea sistema elektrikoaren jasagarritasun ekonomiko eta finantzarioa kaltetu gabe.

Ondoren, Gas eta elektrizitatearen txikizkako merkatuetan gas naturalaren prezioen gorakadaren inpaktua leuntzeko premiazko neurri buruzko irailaren 14ko 17/2021 Errege Lege-dekretuaren bidez, etenaldirako neurri hori 2021eko bigarren sei hileko osorako luzatu zen.

Argindarraren handizkako prezioen ezohiko egoerak, oso altuak baitira, 2022ko lehen hiruhilekoan ere bere horretan jarraituko duela ikusita, egoki jotzen da aipatutako neurria epe horretarako ere luzatzea eta, horrenbestez, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga etenda egonen da 2022ko ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Horrela, zergaren salbuespenari esker, argindarraren ekoizleek, tributu horren zergapekoak diren aldetik, prezio lehiakoragoak eskaintzen ahalko dituzte berriz, kontsumitzaileen mesederako, haien eragiketa kostuetako bat murriztuko baita. Sistemaren oreka bermatzearen, sistema elektrikoari konpentsazioa emanen zaio, neurri horren ondorioz diru-bilketan izanen duten jaitziera adinako zenbatekoa izanen duena.

Bestalde, salbuespeneko neurri iragankor gisa, 2022ko apirilaren 30era arte mantenduko da balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) ehuneko 10eko tasa murriztuaren aplikazioa, faktura elektrikoaren osagai guztien gainekoa, 10 kW-etik beherako potentzia finkoa duten energia elektrikoaren kontratuetarako, baldin eta fakturazioaren aurreko hilabetean handizkako merkatuko hileko batez besteko prezioa 45 eurotik gorakoa izan bada MWh-ko.

Luzatzen da, orobat, BEZaren ehuneko 10eko zerga-tasaren aplikazioa elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrei egindako horniduretan, titular horiek bono soziala jasotzen badute eta ahul larriaren edo gizarte bazterketaren arriskuan dagoen ahul larriaren izaera aitortua badute erre-

ge lege-dekretuaren indarraldian, handizkako merkatuan elektrizitateak duen prezioa kontuan hartu gabe.

Neurri horiek idatzizko prozeduraz jakinarazi zaizkio 2021eko abenduaren 16an BEZaren Batzordeari, Europar Batasuneko araudia betetzeko.

Horrez gain, 2022ko ekainaren 30era arte mantenduko da BEZaren ehuneko 4ko zerga-tasaren aplikazioa maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, pandemiaren iraupena dela-eta populazioak horiek erabiltzen segitu behar izan duelako. Luzatzen den neurria 2021eko abenduaren 31ra arte araututa dago Enpresen kaudimenari eta sektore energetikoari laguntzeko eta tributu arloko premiazko neurri buruzko azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan.

2022ko ekainaren 30era arte luzatzen da, halaber, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasaren aplikazioa COVID-19ari aurre egiteko osasun materialaren barne entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan, baldin eta hartzaileak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak badira; neurri hori 2021eko abenduaren 31ra arte araututa dago apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege-dekretuaren lehen xedapen gehigarrian. Errege Lege-dekretu horren bidez, Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten da, gai hauetan: lehia, kapitalak zuzitzearen prebentzioa, kreditu entitateak, telekomunikazioak, tributu arloko neurriak, ingurumen kalteen prebentzioa eta oneratzea, langileen joan-etorriak nazioz haraindiko zerbitzuak ematean eta kontsumitzaileen defentsa.

Horrela, indarraldia luzatzen da osasun sistemak pandemiaren eta COVID-19aren aldaera berrien kontrolean erantzuten jarrai dezala bermatzeko.

Oinarri hartuta 2020ko apirilaren 3an Batzordeak hartutako 2020-491 (EB) Erabakia, zeinaren bidez inportazio eskubideen frankizia bat eta BEZaren salbuespena ematen baitira 2020an COVID-19aren agerraldiaren ondorioei aurre egiteko behar diren salgaien inportaziorako, Ekonomiari eta enpleguari laguntzeko premiazko neurri osagarri buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuaren 8. artikulua, ikusirik lehen-tasunezko beharrak zirela COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egitea eta osasun materialaren hornidura azkar eta eraginkortasunez egin zedin laguntzea, 2020ko uztailaren 31ra arte ezarri zuen balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasaren aplikazioa mota horretako onda-

sunen barne entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, hartzaileak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak direnean.

Ondoren, Batzordeak 2020/1101 (EB) Erabakia onetsi zuen, 2020ko uztailaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2020/491 (EB) Erabakia, inportazio eskubideen frankizia bat eta BEZaren salbuespena ematen dituen 2020an COVID-19aren agerraldiaren ondorioei aurre egiteko behar diren salgaien inportaziorako, zerga-tasa horren aplikazioa urriaren 31ra arte luzatzeko; erabaki hori zela-eta, Urrutiko lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez, egun horretara arte luzatu zen neurriaren aplikazioa.

Geroago, Batzordeak 2020/1573 (EB) Erabakia onetsi zuen, 2020ko urriaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2020/491 (EB) Erabakia, inportazio eskubideen frankizia bat eta BEZaren salbuespena ematen dituen 2020an COVID-19aren agerraldiaren ondorioei aurre egiteko behar diren salgaien inportaziorako; horren ondorioz, azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretuaren 6. artikulua bidez, 2021eko apirilaren 30era arte luzatu zen neurriaren eragina.

Geroago, Batzordeak 2021/660 (EB) Erabakia onetsi zuen, 2021eko apirilaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2020/491 (EB) Erabakia, inportazio eskubideen frankizia bat eta BEZaren salbuespena ematen dituen 2020an COVID-19aren agerraldiaren ondorioei aurre egiteko behar diren salgaien inportaziorako, ondorioak 2021eko abenduaren 31ra arte izateko; Europar Batasuneko arauaren babesean, apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege-dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren bidez, neurriaren aplikazioa luzatu zen, indarraldi bera emanez.

Europako Batzordeak beste erabaki bat hartu ondoren, 2022ko ekainaren 30era arteko ondorioak izanen dituen, eta neurriaren eraginkortasuna egiaztatuta dagoenez, komenigarria iritzi zaio haren aplikazioa 2022ko lehen seihilekora ere luzatzeari.

Lehen esan bezala, Estatuan onetsi zen abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege-dekretuak zenbait tributu neurri luzatzen ditu, honakoak zehazki: energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etenaldia; balio erantsiaren gaineko zergan (BEZa) ehuneko 10eko tasa murriztuaren aplikazioa elektrizitate hornidura batzuetan; BEZaren ehuneko 4ko tasa murriztuaren aplikazioa maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) entrega, inportazio eta

eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan; eta BEZaren ehuneko 0ko tasaren aplikazioa COVID-19ari aurre egiteko osasun materialaren barne entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, horien hartzaileak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak direnean. Neurri horien guztien indarraldia abenduaren 31ra artekoa da.

Luzatzen diren neurri horiek hartzea justifikatu zuten arrazoiek dirautela ikusita, hau da, batetik, elektrizitatearen amaierako fakturaren kostuak murriztea, 2022ko lehen hiruhilekoan ere elektrizitatearen handizkako prezioek ohi baino garestiagoak izaten jarraituko dutelako, horrek argindarren kontsumitzaileei eragiten dizkien kalteekin, eta, bestetik, bermatzea osasun sistemak erantzun egokia ematen diola COVID-19ak eragindako pandemiari, egokitzat jotzen da neurriei eustea, hasiera batean salbuespenekoak eta iragankorrak izan baziren ere.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, bi neurri horiek, alegia energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldi baterako etetea, eta argindar hornidura batzuetan balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa murriztuaren aplikazioa, araututa daude Tributu Harmonizazioari buruzko uztailaren 14ko 3/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren 1. eta 2. artikuluetan (legegintzako foru dekretu horren bidez balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dira) eta Tributu Harmonizazioari buruzko irailaren 22ko 5/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren artikulua bakarrean (legegintzako foru dekretu horren bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen da).

Eskumen esparru horretan berean, BEZaren ehuneko 4ko tasa murriztua maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) entrega, inportazio eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aplikatzeko neurriak araututa daude Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian (legegintzako foru dekretu horren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da).

Azkenik, COVID-19ari aurre egiteko osasun materialaren barne entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, BEZaren ehuneko 0ko tasa aplikatzeko neurriak, hartzaileak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak direnean, araututa daude apirilaren 29ko 4/2020

Foru Lege-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian (foru lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak onesten dira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak sortutako inpaktuari erantzuteko), abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian (foru lege-dekretu horren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten dira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko), Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian (legegintzako foru dekretu horren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da), eta Tributu Harmonizazioari buruzko ekainaren 23ko 2/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean (legegintzako foru dekretu horren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da).

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu hau eman behar da, aipatutako zergei dagokienez Foru Komunitatean aplika daitezkeen Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita biko otsailaren 8an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Tributu neurri batzuen luzapena.

1. 2022ko apirilaren 30era arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapeneta, Europar Batasunaren barrukoetan, aplikatzeko neurria, Tributu Harmonizazioari buruzko uztailaren 14ko 3/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren 1. artikuluan aurreikusitakoa (legegintzako foru dekretu horren bidez balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dira).

2. 2022ko ekainaren 30era arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko tasa maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) entrega, inportazio eta eskurapeneta, Europar Batasunaren barrukoetan, hau da, Medikamentuen Prezioei buruzko Ministerioen arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakian aipatzen direneta, aplikatzeko neurria, Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren bigarren xedapen

gehigarrian aurreikusitakoa (legegintzako foru dekretu horren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da), bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasaren aplikazioa ere, Tributu Harmonizazioari buruzko ekainaren 23ko 2/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean jasota dagoena, haren eranskinean aipatzen diren ondasunen entrega, inportazio eta eskurapeneta, Europar Batasunaren barrukoetan. 2/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da.

2. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuak zehaztea 2022ko zergaldirako.

2022ko zergaldian, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria hau izanen da: energia elektrikoaren ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, hura zentraletan barretan neurtua, kenduta lehenbiziko hiru hileko naturalean sistemara sartutako elektrizitatearengatik jasotako ordainsariak.

Ordainketa zatikatuak kalkulatu dira zergaldiaren hasieratik urteko hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabetera bitarte ekoiztutako energia elektrikoaren balioaren arabera, energia hori zentraleko barretan neurtua, kenduta lehen hiru hileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateagatik jasotako ordainsariak, aplikatuta Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dituen martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen zortzigarren artikuluan aurreikusitako zerga-tasa, kenduta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari erabaki proposamenak aurkezteko epea

2022ko otsailaren 15era arte luzatzea .(10-21/CDP-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
